

8- Funtsezko jarduerak:

Gure enpresaren funtsezko jarduera Eurittak'-aren ekoizpena eta saltzea izango da. Produktuaren helburua gabezi bat betetzea izango da, eskuak libre utziko dituen aterkia sortzea, alegia.

Jarduera ezberdinak buru beharko dira Eurittak'-a sortu eta saltzeko, hurrengo hauek hain zuzen ere. Lehenik eta behin aterkien egitura eta eskeletoa (kirtena, estuktura eta azkeneko muntaketa) diseinatu eta ekoitziko duen enpresarekin azpikontratu bat sinatuko da. Bestetik, aterki pertsonalizatuak sortzeko inprenta zehatz batekin egingo dugu lan. Azkenik, produktua bezero pribatuetara bidaltzeko *Hapiick* paketeria enpresarekin lan egingo dugu (bestelako enpresetara garraiatzeko enpresako furgoneta erabiliko dugu). Enpresa hauekin harremanak ezartzeaz eta kudeatzeaz Julen arduratuko da, hitz egiteko eta dituen giza-trebetasunengatik.

Bestetik, sare sozialen kudeaketaz eta arlo ekonomikoaz Eneritz arduratuko da, Internet eta informatika menperatzen duelako eta ekonomiako ezagutzak dituelako.

Eider, bere arterako gaitasuna eta originaltasuna gure diseinuetan irudikatuko ditu. Eta Joanak, bere antropologiako ikasketak erabiliko ditu enpresaren barneko harremanak eta egiturak hobetzeko, bai eta merkatuaren prospekzioa egiteko. Bai Eider bai eta Joana ere I+G+B arloan lan egingo dute.

